

Umeentzako ekintzak, Jatabe eta Laukizko liburutegietan

Laukiz. Laukiz eta Jatabe-Maruriko liburutegiek ekintza berriak programatu dituzte hile honetatik hasita umeen ikasturtea amaitu arte. Ohiko liburutegiko zerbitzuetatik aparte, hilero ospakizun bat antolatuko dute herri bakoitzan, beste urte batzuetan bezala.

Lehen ekintza bihar izango da, Laukizko liburutegian, 17:00etatik aurrera. Bertan, Benjamin, ipuin kontalaria, arituko da. Antzezle berberak, emanaldia eskainiko du datorren 19an Jatabeko liburutegian, 17:30ean. Martxokoan, txotxongiloen tailerra izango da eta umeek, panpinak prestatu eta ipuinak kontatu beharko dituzte; 5ean izango da Laukizko hitzordua, 17:00etan. Astebete beranduago eta 17:30etik, jatabetarren ordua izango da. Apirilaren 16an Laukizen, eta 23an Marurin, kamisetetan ipuinen pertsonaika margozteko tailerra izango da. Ipuin grabatua, deitutakoa, maiatzaren 7an izango da Laukizen, eta astebete beranduago Jataben. Azkenik, ekainaren 4an eta 11an, ipuinekin Pictionary jolasa izango dute.